



EKONOMIAREN GARAPEN
ETA AZPIEGITURA SAILA
Industria Sailburuordetza
*Energia, Meategi eta Industria-
Administrazioaren Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS
Viceconsejería de Industria
*Dirección de Energía, Minas y
Administración Industrial*

ALARMA-EGOERAKO MANTENTZE-JARDUEREI BURUZKO

INFORMAZIO-OHARRA

2020ko martxoaren 14an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena. Errege Dekretu hau "gertatzen diren ezohiko inguruabarrei" eta "bai eragindako herritarren kopuru oso handiagatik, bai haien eskubideetarako aparteko arriskuagatik aurrekaririk gabeko osasun-krisiari" erantzuteko onartu zen.

463/2020 Errege Dekretuaren 18. artikulua honako hau aurreikusten du:

- "1. Azpiegitura kritikoak babesteko neurriak ezartzen dituen apirilaren 28ko 8/2011 Legean aurreikusitako funtsezko zerbitzuen operadore kritikoek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte berezkoak dituzten funtsezko zerbitzuak ematen direla ziurtatzeko.
2. Eskakizun hori hartuko dute, halaber, kritikotzat jotzen ez diren enpresa eta hornitzaileek, baldin eta funtsezkoak badira herritarren hornidura eta funtsezko zerbitzuak ziurtatzeko. "

Alarma-egoeraren deklarazioaren eremuan, 2020ko martxoaren 29an, igandean argitaratu zen 10/2020 Errege Lege Dekretua, funtsezko zerbitzuak ematen ez dituzten besteren konturako langileentzat ordainduriko baimen ordaindu berreskuragarri bat arautzen duena, herritarren mugikortasuna murrizteko COVID-19ren aurkako borrokaren testuinguruan. Errege Lege Dekretu honek errekuperatu beharreko nahitaezko baimen ordaindua arautzen du, eta bere aplikazio-eremuan sartzen diren langile guztiei zabaldu ahal izango zaie.

10/2020 Errege Lege Dekretu horren aplikazio-eremua dekretu horren 1. artikuluan definitzen da, eta artikulua horren lehen apartatuak xedatzen du artikulua horretatik salbuetsita geratzen direla "Errege lege-dekretu honen eranskinean funtsezkotzat jotako sektoreetan zerbitzuak ematen dituzten langileak".

Industria-segurtasunari buruzko araudia bete behar duten jardura eta instalazioen eremuan, bereziki garrantzitsuak dira Errege Lege Dekretuaren eranskineko 5. eta 18. paragrafoak; izan ere, xedatzen dute nahitaezko baimen ordaindu hori ez dela aplikatuko honako hauei dagokienez:

- "5. Eranskin honetan jasotako funtsezko jarduerak behar bezala garatzeko beharrezkoak diren hornidurak, ekipoak eta materialak eskaintzen dituzten manufaktura-industriaren ekoizpen-jarduerak mantentzeko ezinbestekoak direnak."
- "18. Garbiketako, mantentze-lanetako, premiazko matxurak konpontzeko eta zaintzako zerbitzuak ematen dituztenak, bai eta honako arlo hauetan zerbitzuak ematen dituztenak ere: hondakin arriskutsuak, arriskutsuak eta ez-arriskutsuak diren hiri-hondakin solidoak, hondakin-uren bilketa eta tratamendua, deskontaminazio-jarduerak eta hondakinak kudeatzeko eta azpiproduktuak garraiatu eta kentzeko beste zerbitzu batzuk, edo sektore publikoko edozein

erakundetan, 3. artikuluan ezarritakoaren arabera. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektoreko Kontratuena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industriari buruzko azaroaren 12ko 8/2004 Legearen lehenengo artikulua xedatzen duenez, lege horren xedea da "industria-jarduera eta -sustapena arautzeko arau-esparrua ezartzea, bai eta, industria-segurtasunaren eta -kalitatearen esparruan, industria-instalazio, -aparatu, -ekipo, -prozesu eta -produktuen esku-hartze eta administrazio-kontrolerako jarraibideak zehaztea ere". Horretarako, besteak beste, 1.2 artikuluan aurreikusitako helburu hauek hartzen ditu kontuan: "a) Enpresa-askatasunaren eta egoitza jartzeko askatasunaren itzalpean, industrian jardutea babestea. ", eta "b) industria-segurtasuna eta -kalitatea sustatzea eta kontrolatzea".

Industriari buruzko Euskal Legearen funtsezko osagaia industria-segurtasuna da, 7. artikulua agintzen duenez: "Industriako segurtasuna nahitaezko xedapen-sistema bat da, eta bi helburu ditu: arriskuei aurrea hartzea eta muga jartzea, batetik, eta, bestetik, istripuen aurkako babesa, istripu horiek pertsona, ondasun edo ingurumenari kalte egiteko modukoak badira eta industrijarduerak sortuak badira, edo instalazioen edo ekipoen erabilerak, funtzionamenduak eta mantentzeak sortuak, edo industriako produktuak ekoiztearen, erabiltzearen edo kontsumitzearen, biltegitratzearen edo zakarretara botatzearen ondorioz sortuak". Ildo horretan, lege-arau beraren 17.2.d) artikulua honako hau aurreikusten du: "Instalazioen bat geldiarazteko, haren funtzionamenduak kalteak sortzeko arrisku larria eta berehalakoa ekarri behar du, nahitaez. Erabat geldiaraz daiteke, edo zatiren bat geldiaraz daiteke; zatiren bat geldiarazita teknikoki posible bada helburua betetzea, zati hori geldiaraztea erabaki behar da, beti."

Horregatik guztiagatik, eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuaren 13.1 artikulua organo honi esleitzen dizkion eskumenak baliatuz, honako irizpide hauek ezartzen dira:

a) Industria-instalazioak konpontzeko edo mantentzeko jarduerak funtsezkoak dira 463/2020 Errege Dekretuan eta 10/2020 Errege Lege Dekretuan xedatutakoaren ondorioetarako. Industria-instalaziotzat hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Industriari buruzko azaroaren 12ko 8/2004 Legearen aplikazio-eremuan sartzen direnak.

b) Jarduera horiek instalazioek eta haiei lotutako jarduerak behar bezala funtzionatzen edo garatzen jarraitu ahal izateko behar-beharrezkoa den horretara mugatu behar dira.

c) Instalazio batek behar bezala funtzionatzen jarrai dezakeela ulertuko da haren funtzionamenduak ez badu kalteen arrisku larria eta berehalakoa eragiten.

d) Kalte-arrisku larria eta berehalakoa dagoela ulertuko da, akats oso larriak dituen instalazio bat martxan dagoenean.

e) Aurreko paragrafoetan ezarritakoari kalterik egin gabe, funtsezkotzat joko dira, halaber, akats larriren bat duten instalazioak konpontzeko edo zuzentzeko jarduerak, baldin eta akats hori berehala ez zuzentzeak kalteak eragiteko arrisku larria eta berehalakoa ekar badezake.

Irizpide horiek ezartzen dira, hargatik eragotzi gabe eremu horretan gainerako agintaritzak eskudunek ezar dezaketena eta inguruabar objektibo berriak direla-eta zehaztu, garatu edo aldatu ahal izatea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 31.